

Enpresen egoera

16ko III. hiruhilekoa: Hiruhileko arteko Δ : % -3,5%; Δ Metatua: % +0,5%

Enpresen salmentak % -3,5 murriztu dira hirugarren hiruhilekoan aurreko urtearekiko. Esportazioak % -10,1 murriztu dira, barne salmentak, aldiz, % +0,3 eskasa hazi dira. Irailera arte % +0,5eko hazkundera metatu dute salmentek.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako datuen arabera, **hirugarren hiruhilekoan % -3,5 murriztu dira enpresen salmentan** aurreko urtearekiko (% +6,7 orduan). Uztailean eta irailean erregistratutako urte-arte tasa negatibo ondoz gertatu da hau (% -6,5 eta % -7,1), abuztuko hazkundera (% +6,5) ez baita nahikoa jaitziera horiek konpentsatzeko. Hau horrela, **urtarrila eta iraila bitartean**, salmentek **% +0,5eko** hazkunde txikia metatu dute aurreko urteko urtearekiko (% +6,0 orduan).

Esportazioak dira murrizten direnak **hirugarren hiruhilekoan**, **% -10,1** aurreko urtearekiko (% +11,0 orduan). Bai EBera (% -5,6), baita, bereziki, EBetik kanpo (% -16,2) zuzendutako esportazioak murriztu dira. Hortaz, **urtarrila eta iraila bitartean % -1,3ko** murrizketa metatu dute esportazioek aurreko urtearekiko. Hala ere, epe horretan, bakarrik EBetik kanpo zuzendutakoak murriztu dira, % -12,6; EBera zuzendutakoak, berriz, % +6,6ko hazkundera metatu dute.


Barne salmentak, ordea, **% +0,3** txiki bat hazi dira **hirugarren hiruhilekoan aurreko urtearekiko**. Bilakaera positibo hau, abuztuan erregistratutako % +6,4ko hazkundera esker gertatu da bereziki, irailean % +0,3 eskasa handitu eta uztailean % -3,9 murriztu baitziren. Hau guztiarekin, **urtarrila eta iraila bitartean % +1,5eko** hazkundera metatu dute aurreko urteko epe berarekiko, % +3,8 orduan.

Inportazioek, bestalde, **% -12,5** egin dute **behera hirugarren hiruhilekoan aurreko urtearekiko**. Hau da beraz, emaitza negatiboak ematen diren hirugarren hiruhilekoa jarraian. Ondorioz, **urtarrila eta uztaila bitartean inportazioek % -7,3ko** murrizketa metatu dute aurreko urtearekiko, % +14,6 orduan. Bai EBetik, % -6,6, bai EBetik kanpo iritsitako inportazioak jaitzi dira, % -9,6.

Enpresen salmentak				
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	+3,3	+3,4	+0,9	+3,4
2015-I	+7,2	+8,8	-5,7	+6,6
2015-II	+4,2	+4,5	-4,5	+5,1
2015-III	+6,7	+7,3	-6,3	+8,0
2015-IV	+2,3	+1,9	-12,4	+5,9
2015	+4,9	+5,4	-7,5	+6,3
2016-I	-2,1	-4,0	-9,0	+2,0
2016-II	+6,7	+9,0	+0,7	+4,0
2016-III	-3,5	-7,4	-6,8	+3,0
2016*	+0,5	-0,6	-4,8	+3,0

Salmentak

Urte arteko bariazio tasak-3 hilabeteetako batez bestekoa



Sektoreka, **zerbitzuetako salmentak** bakarrik hazi dira hirugarren hiruhilekoan, **% +3,0**, hau izanik, gainera, emaitza positiboak izan diren hamargarren hiruhilekoa jarraian. **Industria eta eraikuntza sektoretako salmentak**, aldiz, **% -7,4 eta % -6,8** murriztu dira hurrenez hurren. Hau horrela, kasu guztietan bai uztailean bai iraileko urte-arteko tasak positiboak izan diren arren. Hala ere, **urtarrila eta iraila bitartean zerbitzu sektoreko salmentek % +3,0ko** hazkundera metatu dute aurreko urtearekiko, baina **% -0,6** murriztu dira **industria** sektorearenak eta **% -6,8 eraikuntza** sektorearenak.

Salmenten bilakaera negatiboa izan den arren, **enplegu mailak % +2,9** egin du aurrera **hirugarren hiruhilekoan aurreko urtearekiko**. % +5,2 egin du aurrera zerbitzutan eta % +2,1 industria sektorean, bakarrik eraikuntza sektorean murriztu delarik, % -8,1. Horrela, **urtarrila eta iraila bitartean enpleguak % +2,9ko** hazkundera metatu du aurreko urtearekiko. % +5,2 hazi da zerbitzuetan eta % +2,0 industrian, eraikuntzan, ordea, % -7,7 murriztu da.

Bestalde, **enplegatutako pertsona bakoitzeko batezbesteko ordainsaria % -0,2ko** jaitziera metatu du **irailera arte**. Hala ere, jaitziera hau **eraikuntza sektorean** gertatutakoaren ondorioa da, **% -2,0**, **industria** eta **zerbitzuetan % +0,2** egin baitu gora.

Enplegu mailaren hazkundera esker, **lehenengo hiru hiruhilekotan soldata masa osoak % +2,6ko** hazkundera metatu du aurreko urtearekiko, % +2,0 orduan.

Adierazlea	Δ % III tr	Δ % Metatua
Guztira	-3,5	+0,5
Barnekoak	+0,3	+1,5
Esportazioak	-10,1	-1,3
Inportazioak	-12,5	-7,3
Enplegua	+2,9	+2,9
Soldadak	+2,5	+2,6
Batez besteko ordainsaria	-	-0,2